

Gaia: 08/2024

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDITIK JASOTAKO DIRULAGUNTZA BATEN ESPARRUAN BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEARI BURUZKO SALAKETARI BURUZKO EBAZPENEA

I.- KONTSULTA

Uztailaren 4an, idazki bat jaso zen salaketa anonimoen kanalaren bidez. Bertan, (...)ri leporatzen zaio foru Aldundiak hirugarren sektore sozialeko erakundeen egoitzetan inbertitzeko emandako dirulaguntza baten ondorioz hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.

Zehazten denaren arabera, deialdi hori arautzen duten oinarriek betebehar eta konpromiso gisa adierazten dute erakunde onuradunen betebeharra eta konpromisoa dela dirulaguntzaren arrazoia den zentroa gutxienez 10 urtez mantentzea, eta ez-betetzen kasuan jasotako zenbatekoak itzultzea ezartzen dute. Dirulaguntza 2019an eman zenez, eta 2023ko azken hiruhilekoan jarduerak beste leku batera aldatu zirenez, ez-betetzea salatzen da eta deialdian ezarritakoa betearazteko eskatzen da.

II.- APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko Erabakiaren bidez onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (aurrerantzean, EZS), zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna ezaugarri gisa finkatu nahi baitira.

Sistema horren esparruan, zenbait jokabide kode onartu ziren: Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK); Diputatuen Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); Diputatuen Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DLJK); 13/2022 Foru Dekretuaren bidez, 2022ko irailaren

13koak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoarekin elkarreragiten duten Interes Taldeei aplikatu beharreko Jokabide Kodea (ITJK); eta Diputatuen Kontseiluaren 2023ko urtarrilaren 10ko erabakiaren bidez Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DAAK) .

2.- Bai EZSk bai jokabide kodeek hau ezartzen dute: Erakundearen Etika Batzordea (EEB) izango dela berme handieneko organoa eta hura aplikatzeko gaien berri izango duena. Batzorde horren antolaketa, prozedura eta funtzionamendua maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuan arautzen dira, eta Batzordearen ardura izango da Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jokabide arauak ez betetzeari buruz jasotako kexak eta salaketak izapidetzea eta ebaztea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Gai honetan, salatzen da gizarte-erakunde batek ez dituela betetzen Zaintza eta Gizarte Politiketako Sailak emandako dirulaguntza batean ezarritako baldintzak.

Kexa hirugarren baten gainekoa denez, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretuak, gaiak izapidetu, ebatzi eta jakinarazteari buruzkoak, 9. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, ekainaren 12n (...) Zuzendaritzako arduradunei (aurrerantzean, Zuzendaritza) helarazi zitzaizen jasotako kexa, informazioa emateko eta egoki irizitako gogoetak adierazi eta argudiatzeko eskubidea bermatzeko, eta, aldi berean, EEB honek beharrezkotzat jo zituen galdera batzuk egin ziren, gaia konpondu ahal izateko. Ildo horretatik, Zuzendaritzak idazki bat bidali zuen ekainaren 26an bere oharpenekin.

2. - Gai honetan salatzen da (...)k (aurrerantzean, Fundazioa) ez dituela bete oinarri arautzaileetan aurreikusitako gizarte-zerbitzuetako zentroetan inbertitzeko dirulaguntzak emateko ezarritako baldintzak, eta bertan aurreikusitako zehapenak betearazteko eskatzen da.

Adierazten denez, Foru Gobernuaren Kontseiluak, 2018ko urriaren 9an egindako bilkuran, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte-zerbitzuen zentroetan inbertitzeko dirulaguntzak emateko 2018ko eta 2019ko oinarri arautzaileak eta deialdiak onartu zituen, eta, ondoren, martxoaren 14ko 187/2019 Foru Aginduaren bidez, 2019ko deialdia ebatzi zen, non jasotzen baitzen 128.800 euroko dirulaguntza ematea fFundazioari dirulaguntzaren 3. lerroan, hirugarren sektore sozialeko erakundeen egoitzetan inbertitzeko dirulaguntzei buruzkoa hain zuzen ere.

Gainera, deialdiaren oinarri arautzaileek ezartzen dute, erakunde onuradunek beren gain hartu beharreko betebeharrak eta konpromisoen artean, dirulaguntza bideratutako zentroa gutxienez 10 urtez mantentzea, obra amaitzen den egunetik hasita. Era berean, adierazten du jasotako zenbatekoak itzuli egingo direla eta berandutze-interesa eskatuko dela dirulaguntza ordaindu zen unetik, dirulaguntza eman zen proiektuaren edo jardueraren helburua bete ez bada edo erakunde onuradunak zentroaren destinoari eutsi ez badiu, gutxienez 10 urtez. Halaber, zehazten du ez-betetzea lehenengo bi urteetan gertatzen bada, zenbateko osoa itzuliko dela, eta 2 urte eta egun bat eta 5 urteen artean gertatzen bada, zenbatekoaren % 75 itzuliko dela.

Bada, dirulaguntza emateko unean, Fundazioak dirulaguntza hori eskatu zuen (...)an duen egoitzarako jarduera-lizentzia lortzeko, batez ere eraikin osorako irisgarritasunari dagokionez, baita goiko solairuetarako (igogailua), suteetarako (2. ebakuazio-eskailera eta suteen aurkako sistema) eta leihoak eraberritzeko eta barruko trenkadak hobetzeko ere.

Adierazi denez, eraikin horretan honako hauek zeuden:

- (...)

Baina 2023ko azken hiruhilekoan, (...)ak dituen bulego batzuetara eraman zituen datozen urteetan ustez egoitza izango zuen jarduerak, (...) espazioa izan ezik, (...)an egiazta daitekeen bezala, eraikinaren jabearekin zuen errentamendu-kontratua aldatuz eta Fundazioak okupatzen zituen goiko solairuetarako sarbidea desgaituz.

Horregatik guztiagatik, dirulaguntzen deialdian jasotako betebeharrak eta konpromisoak betetzeko eskatzen da.

3.- Zuzendaritzak, bere aldetik, gai horren jakinaren gainean dagoela esan du; izan ere, Fundazioak, inbertsiorako dirulaguntzak emateko deialdian ezarritako betebeharrak eta konpromisoak betetzeko, foru Aldundiko Zaintza eta Gizarte Politiketako Departamentuari jakinarazi zion bere bulegoen eta bertan ematen diren zerbitzuen egungo egoera. Jasota dagoenez, Fundazioak egoitza horretan duen jarduera ez da erabat eten, baina egia da jarduera batzuk lekuz aldatu dituela eta, ondorioz, jarduerak behera egin du. Nolanahi ere, adierazi du Fundazioak badakiela zer egoera eta eskakizun dituen araudiak eta laguntza itzuli beharko duela betetzen ez badu.

Gaur egun Departamentuan bertan gai horren jarraipena egiten ari dela ziurtatzen da.

4.- Gai honetan, DLJKak bai atal endogenoan bai exogenoan ezarritakoa hartu behar da kontuan, Fundazioak eta Departamentuak Kodean ezarritakoaren arabera jardun duten aztertu beharko baita.

DLJK da orain arte EEBk gutxien aztertu duen kodea EZS osatzen duten guztien artean, baina oso garrantzitsua da kontuan hartzen badugu foru-sektore publikoak urtero ematen dituen laguntzen eta dirulaguntzen bidez konprometitzen den diru publikoaren bolumena; beraz, zioen azalpenean esaten den bezala, ezin da alde batera utzi kontrolaren garrantzia eta beharra.

Alde batetik, adierazten da DLJK baldintza gisa sartu behar dela emakida arautzen duten oinarrietan eta kasuan kasuko deialdietan, parte hartuko duten enpresek eta erakundeek DLJKren berri izan dezaten eta nahitaez bete behar dutela bermatzeko, eta hori behar bezala egin zen gai honetan; izan ere, EEB honek egiaztatu ahal izan du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoko Laguntzen, Beken eta Dirulaguntzen atalean (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak/-/laguntza/2019/9/PSINV3>) sartuta dagoela, DLJKren 3.4 artikuluan ezarritakoa betez:

3.- Aplikazio eremua

(...)

*3.4. Jokabide kode eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparru hau betetzeko konpromisoa **baldintza izango da diru laguntzak eta laguntzak arautzeko oinarrietan zein horietarako kasuan kasuko deialdietan.***

(...)

Bestalde, DLJKko 4. apartatuak adierazten du dirulaguntzak eta laguntzak kudeatzeko prozeduretan parte hartzen duten foru-administrazioaren eta haren sektore publiko instituzionaleko erakundeen zerbitzura dauden kargu eta langileek, beren jokabide eta portaera profesionalak dagozkien aplikazio-kodeetan araututako balio eta printzipioetara egokitzeaz gain, bertan aurreikusitako baldintzetan, horien gauzatzea kontrolatu beharko dutela:

4.- Foru sektore publikoko kargudun eta langileentzako balio, printzipio eta jarduera arauak, laguntzak eta diru laguntzak kudeatzeko prozeduretan.

(...)

7) **Erabat bermatuko da diru laguntzak eta laguntzak gauzatzearen gaineko ondorengo kontrola**, batez ere baliabide publiko erabilgarriari eman erabilerari eta horren justifikazioari dagokienez. Organo kudeatzaileek, une oro, datu horiek egiaztatzeko beharrezko dokumentazioa eskatu ahal izango dute.

(...)

Beraz, ukaezina da langile publikoek a posteriori egin behar dutela emandako laguntzak eman ziren helburuetarako benetan erabiltzen direla ziurtatzeko beharrezko jarraipena, horretarako dokumentazioa eskatzeko edo egoki iritzitako kudeaketak egiteko gaituz.

Bestalde, laguntza horiek jasotzen dituzten pertsonen edo erakundeen kasuan ere betebeharrak ezartzen dira, betiere foru Administrazioa definitzen duten balioak eta printzipioak oinarritzat hartuta.

Zentzu horretan, hemen kontuan hartu beharreko balio eta printzipio desberdinak aurkitzen ditugu. Alde batetik, **Zuzentasunaren** (5.1) eta **Efizientziaren** (5.3) balioak, jasotako laguntza zertarako erabiliko den ziurtatzearen alde daude, hau da, eskatutako xedea betetzeko benetan erabiliko den ziurtatzearen alde, eta justifikaziorako eta kontuak emateko arauak ezarri dituzte:

5.- Balioak

1.- Zuzentasuna

*Jasotzen dituzten laguntzen eta diru laguntzen ondorioz garatzen dituzten transzendentzia publikoko jardueretan zertzen dituzten eginkizunetan, entitate, enpresa eta organismo onuradunek zein, bereziki, horietako gobernu organoetako arduradunek eta langileek, portaera zuzena izan beharko dute laguntza edo diru laguntzen bitartez jasotako baliabide publikoak erabiltzen dituztenean, **baliabide horiek esleitutako xedeetara bideratu dituztela justifikatuta betiere**. Era berean, une oro baztertu egingo dituzte Kode honetan jasotzen diren balio eta printzipioen kontra jo dezaketen jokabide guztiak.*

(...)

3.- Efizientzia

*Foru Administrazioetik edo haren sektore publikoko entitateetatik datozen baliabideen kudeaketak eta laguntzen eta diru laguntzen kudeaketa ekonomiko eta finantzarioak efizientzia izango dute arau. Ondasun edo baliabide publikoen erabileran xahutze mota oro baztertuko da, horien erabilera optimizatuta. **Horretarako, fiskalizazio organoei berehala emango diete aipatu baliabide publikoek izan duten erabileraren berri.***

(...)

Jarduteko printzipioak ezartzen dituzten araei dagokienez, jasotako laguntzaren xedearen berri emateko betebeharra aipatzen da berriro ere:

6.- Printzipioak

(...)

5.- Kontuak ematea

Laguntzen eta diru laguntzen onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoek erabateko arduraz jardungo dute, beti, jasotzen dituzten funts publikoak erabiltzeko eta bideratzeko unean. Horrek guztiak eskatzen du funts publiko horiek, bereziki, emandako diru laguntzak edo laguntzak duen xedera bideratzea. Edonola ere, onuradunek bere gain hartu beharko dituzte eskakizun horiek oker betetzearen ondorioak, Kode honetan ezarria urratzen duten jarduera edo jokabideen ondorioak bezalaxe. Erakunde horiek, eta batez ere dituzten arduradunek edo zuzendaritzako pertsonalak, kontuak eman beharko dituzte, aldian behin, Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoko entitateen aurrean.

Gai honetan, Zuzendaritzak bidalitako idazkitik ondorioztatzen den bezala, Fundazioak bere bulegoen eta bertan ematen diren zerbitzuen egoeraren berri eman zien foru arduradunei, eta Zuzendaritza, bere aldetik, hartu beharreko neurriak baloratzen ari da, beraz, badirudi DLJKn ezarritako eskakizunak bete direla.

Azkenik, ebazpen honekin eta alderdi interesdunei helarazita, DLJKn bertan ezarritakoei erantzuten diegu (6.3), zeinak ezartzen duen onuradun jakin batek Kodean adierazitako balioak egokitzen ote dituen zalantzarik izanez gero, EEBak txosten bat helaraziko diola organo eskudunari, dagokion erabakia har dezan.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak erabaki hau hartu du, aho batez, 2024ko uztailaren 30an



EBAZPENA

Lehenengoa. - Zuzetasunaren eta Efizientziaren balioetan eta Kontuak Emateko printzipioan ezarritakoa kontuan hartuta, gai honetan ez da urratu Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari ezarritakoa.

Bigarrena. - Nolanahi ere, dena delako egoitzan jarduera erabat eten dela egiaztatzen bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari eta dirulaguntza emateko oinarri arautzaileetan eskatutakoak bete beharko dira.

Irene Berasaluze Lazkano
Erakundearen Etika Batzordeko lehendakaria